

Anai-arreba maiteok:


Urtero bezala, garai honetan Elizak Misioen Mundu Eguna ospatzen du, DOMUND eguna. Frantzisko aita santuak lelo hau aukeratu du aurten egun horretarako: **"Bihotza adorez, oinak bidean"**. Eta, horren bidez, eskatzen digu guk ere, Jesusen ikasleek bezala, gure bihotzak pozez, berotasunez eta esperantzaz bete ditzagula, eta, misiolari-espirituarekin, gure anai-arreben bila joan gaitzela, munduaren periferian hainbat eta hainbat gizon-emakumek, apaiz, moja eta laikok, egiten duten bezala.

Frantzisko aita santuak DOMUND eguna dela-eta bidali digun gutunak inspirazioa eta indarra ematen dizkigu gure eguneroko ibilbidean izaten ditugun ahuldade-uneetarako. Gutako bakoitza eguneroko bizitzan eta errealitatean nekaturik eta abaildurik sentitzen gara une askotan, eta, halakoetan, bere ondoan ibiltzera gonbidatuko gaituen norbait behar izaten dugu, lagun egingo digun norbait, horrela gure larrimina eramangarriagoa izan dadin. Hain zuzen ere, une horietan denok ezagutzen dugu Jesusen maitasuna. Maitasun horrek erakarri eta inspiratu egiten gaitu, eta Berarenganako maitasuna pizten digu.

Misiolariak ere era horretan, anai-arreben ondoan ibiliz, joaten dira besteei laguntzera: Jesusen mezuak bihotza ukitu ondoren, bideari ekiten diote; beren lurra, familia eta lagunak utzirik, munduan barrena doaz Jainkoaren maitasun-mezua zabaltzera. Mezu hori ez dute beretzat gordetzen, munduari helarazi nahi diote. Askotan, ez al zaizue gertatzen misiolarien testigantza entzunda bihotza gori-gori jartzen zaizuela eta horrek bidean jartzeko kemena ematen dizuela? Horixe da Elizaren misioa: Jainkoaren maitasuna helaraztea munduari. Eta are gehiago gaur egun; izan ere, injustiziek, bereizketek eta gerrek zauriturik utzi dute gizateria, eta bakearen eta salbamenaren Berri Ona behar du.

DOMUND eguna espiritu sakonaz eta esker oneko jarreraz bizitzeko eskatzen dizuet, eta Mariak, Misioen erreginak, lagundu diezagula bidea aurkitzen, bost kontinenteetan oinak bidean eta bihotza lagun hurkoarengan jarriak dituzten misiolariari laguntzeko.

Nire maitasun eta bedeinkapenarekin.
In Corde Matris


Fernando Prado Ayuso
Donostiako gotzaina.

